

**MUSIKA, IRRATIA ETA
PODCASTAK**

**31. TXOSTENA
2022KO OTSAILA**

MUSIKA, IRRATIA ETA PODCASTAK

Txosten honetan aurkezten dira 2021-2022 ikasturtean egindako laugarren inkestan jasotako emaitzak. Musikari, irratia eta podcastei buruzko gaiak landu dira nagusiki inkesta honetan.

1. OHAR METODOLOGIKOAK

Azterketa-lan hau egin den unean, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (UPNA) mila ikasletik gorak osatzen dute Ikusiker Panela. Unibertsitari hauek modu iraunkor eta maiztasun handiz erantzuten dituzte luzatzen zaizkien online galdera-sortak, beti ere ikus-entzunezkoen kontsumoei eta IKTen-Informazio eta Komunikazio Teknologien erabilerei buruzkoak. Panela 2018-2019 ikasturtean sortu zen Applika izeneko ikerketa-proiektuaren barruan (US17/40). UPV/EHUko NOR ikerketa-taldeak eta EITBk abiatutako proiektuan unibertsitateko ikasketa desberdinetako eta hiru kanpusetako ikasleak biltzen ditu panelak. Galdetegiak encuestafacil.com plataformaren bitartez kudeatzen dira eta hortik jasotako datu baseak Aztiker Soziologia Ikerketa Zentroak ustiatzen ditu.


Txosten honetan aurkituko dituzu 2022ko urtarrilaren 26tik otsailaren 2ra bitartean martxan izandako inkestaren emaitzak. Hilabete honetan panelkideek musika, irratia eta podcastak nola kontsumitzen dituzten jakin nahi izan da galdetegiaren bitartez. 1.276 erantzun hartu dira kontuan, baliozko panelkide guztienak (inkestaren amaierara iritsitakoak eta errepikatu gabeak).



2. MUSIKA

Inkesta honetan musika entzuteko ohiturei buruz galdetu da. Hasteko, erantzuleen ia erdiek adierazten dute musika etxean entzuten dutela gehienbat (% 46,2k), edota bestela garraio publikoan (% 24,9k), kalean (% 13,6k) edo kotxean (% 9,0k). Tabernak eta diskotekak dira aukera guztietan ehuneko txikiena ateratzen dutenak, % 2,0 hain justu. Beste leku batzuk dituzte burutan % 3,8k eta % 0,5ek dio ez duela musikarik entzuten.


1. Irudia – Musika non entzuten duzu gehienbat? Aukeratu tokirik arruntena zuretzat.



Iturria: Ikusiker Applika +

Interneten bidez musika entzuteko zein plataforma erabiltzen duten galdetuta, ia guztiak aipatu dute Spotify bere lehenengo hiru aukeren artean (% 84,6k), eta erdia pasak Youtube (% 53,9k). Beste plataformak oso gutxi aipatzen dira, % 4aren azpitik.


2. Irudia – Interneten entzuten baduzu musika, zein programa, aplikazio ala plataforma erabiltzen duzu? Hiru aukera gehienez



Iturria: Ikusiker Applika +

Musika entzuteko erabiltzen diren ohiko irratien kasuan, aipatzekoa da laurdena pasak adierazten duela ez duela musika entzuten irratitik (% 27,3k). Irrati aipatuena Los 40 da, % 47,1ek aukeratua. Ondoren dator Gaztea Irratia, % 31,0k aukeratu baitu. Segidan Cadena 100 dago, erantzuleen % 22,7k aukeraturata, eta hamarrena gaitzen duen azkena Europa FM da, % 15,5ek aipatuta.


3. Irudia – Musika entzuteko irratia erabiltzen baduzu, zein emisora izaten da? Hiru aukera gehienez



Iturria: Ikusiker Applika +

Gehien entzuten diren musika generoen artean hiru nabarmentzen dira bereziki: popa (% 53,7k aipatua), reggaetoia (% 47,2k aukeratua) eta pop/rocka (%46,0k aipatua). Ondoren, nahikotxo distantziara, rapa eta trapa daude (% 18,5ek eta % 14,4k aipatuta), eta segidan hip hopa eta elektronikoa (% 9,9k eta % 9,1ek esanak).

4. Irudia – Zein musika entzuten duzu gehien? Generoak (hiru aukera gehienez)




Iturria: Ikusiker Applika +

3. GAZTEA IRRATIA

Gaztea Irratiari dagokionez, erantzuleen ia hamarretik zazpik dio entzuten duela edo entzun izan duela noizbait (% 69,6k).


5. Irudia – Gaztea Irratia entzuten duzu ala entzun duzu inoiz?



Iturria: Ikusiker Applika +

Hamarretik seik balorazio ona egiten du Gaztea Irratiaren inguruan: % 12,6k dio oso ona iruditzen zaiola eta % 53,5ek ona iruditzen zaiola. Beste aldean, balorazio negatiboa egiten dutenak % 7,4 dira.


6. Irudia – Zer iruditzen zaizu Gaztea Irratia?



Iturria: Ikusiker Applika +

Gaztea Irratiari buruzko esaldi batzuk aurkeztu dira segidan, eta inkestatuei beren adostasun maila adierazteko eskatu zaie. Ondoko koadroan jasotzen dira esaldiak, adostasun handiena lortu duenetik txikiena lortu duenera ordenatuta (ezkerretik eskuinera)¹. Adostasunik handiena “euskaraz da” esaldiak lortu du (% 35,8 guztiz ados eta % 39,7 ados); esaldi honen kasuan, “guztiz ados” agertu direnen ehunekoak besteetan baino nabarmen altuagoa da. Segidan “aurkezleak atseginak dira” (% 16,9 guztiz ados) adierazpena gelditu da, eta nahiko antzeko balioetan “gazteei zuzendua dago” (% 17,0 guztiz ados eta % 45,8 ados). Eskalaren beste muturrean, adostasun txikiena jaso duten esaldiei dagokienez, Gaztea Irratia entzuteko ohiturari dagozkien adierazpenak gelditu dira: “entzuteko ohitura daukat” esaldiarekin desados agertu dira % 36,9 eta “nire lagunek entzuten dute” esaldian ere % 33,1ek ez dela beren kasua adierazi dute.

7. Irudia – Gaztea Irratiari buruzko iritziak




Gazteari buruzko iritziak

Iturria: Ikusiker Aplikak +

¹ Adostasunaren arabera ordenatzeko indize bat erabili da, -100/100 balioen artekoa. Honako operazioa egin da horretarako: $(\text{guztiz ados} + \text{ados} / 2) - (\text{kontra} / 2 + \text{guztiz kontra})$.

Sare sozialetan Gaztea Irratia jarraitzeko dagoen ohiturari dagokionez, % 87,9k adierazi du ez duela inon jarraitzen. Nonbait jarraitzen dutenen artean, ia denek Instagramen bidez egiten dute, erantzuleen % 10ek zehazki (segidan Twitter dator baina % 1,2 dira).

8. Irudia – Hauetariko zein sare sozialetan jarraitzen duzu Gaztea Irratia?




Iturria: Ikusiker Applika +

4. PODCASTAK

Amaitzeko, podcastei buruzko galdera batzuk egin dira. Erantzun dutenen ia erdiek, %44,6k, noizean behin behintzat entzuten dituzte podcastak (% 10,7k askotan, % 18,6k batzuetan eta % 15,3k noizean behin). Beste aldean, inoiz entzuten ez dituztenak %28,1 dira.


9. Irudia – Entzuten dituzu podcastak?



Iturria: Ikusiker Applika +

Gairik gustukoenetan, nabarmen, “elkarrizketak” gailentzen dira, % 38,2k aukeratu baititu. Segidan, % 16,5ek aipatuta, “youtuberrak, gamerrak eta vloggerrak” daude, eta hirugarren lekuan “komedia, memeak eta parodiak” (% 10,7k aipatuta).


10. Irudia –Podcastak entzuterakoan, zein da zuretzat gairik gustukoena?



Iturria: Ikusiker Applika +

Podcastak entzuteko erabili ohi diren gailuetan ere oso joera markatuak daude: ia hamarretik zortzik, % 79,3k, telefono mugikorra erabili ohi du, eta % 11,1ek ordenagailu eramangarria. Bestelako aukeren artean % 9,7 kokatzen da.


11. Irudia – Zein da gehien erabiltzen duzun gailua podcastak entzuteko?



Iturria: Ikusiker Applika +

Amaitzeko, podcastak zein neurritan dituzten gustuko galdetu zaie, 0 eta 10 bitarteko eskala batean. Batez beste 6,4ko puntuazioa eman zaie; puntuazio zehatzei dagokienez, inkestaturen % 45ek 8 edo 7 puntuazioak aukeratu ditu.

12. Irudia – Podcastak entzuteko ohitura baduzu, esan noraino dituzun gustuko (0-10 eskala erabili).



Iturria: Ikusiker Applika +